1.500 ikasle daude dagoeneko izena emanda, iazko urrian baino 100 gehiago, eta interesa azaldu duten zentroen **%10 Lanbide Heziketakoak** dira.

Kutxabanken 'Finantzak Bizitzeko' programan parte hartuko duten ikasleen kopuruak hazten jarraitzen du LH-koak bateratuta

- **Aurreko hiru edizioetan 4.900 neska mutil inguruk parte-hartu dute, eta ikastetxe guztiak azaldu dira esperientzia errepikatzeko prest, oso biribila dela iritzita**
- **Simulazio joko batean oinarritzen da programa, eta finantzen munduarekin lotira duten ikasketak eskaintzen ditu. Saioak urrian hasiko dira eta ekainean amaitu**

2018ko urriaren 4an. 'Finantzak Bizitzeko' ekimenaren laugarren edizioak Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide heziketako 69 zentrori ere zabaldu die aurten parte-hartzeko aukera eta, horren eraginez, hezkuntza programa honetan esku hartzeko borondatea duten ikastetxeen kopurua hazi egin da laugarren urtez jarraian. Hain zuzen ere, orain arte zenbatu diren izen-emateen datuek igoera nabarmena erakusten dute **zentro publikoek eta itundutako ikastetxeek** simulazio joko original honetan parte-hartzeko azaldu duten interesean. Jokoaren helburua gaztetxoen artean finantza ezagutza zabaltzea da, heldutasunean oinarriko irizpide batzuek izan ditzaten..

'Finantzak Bizitzeko' ekimenaren 2018-2019 ikasturtean izena emateko epea irailaren hasieran zabaldu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publiko eta itundutako ikastetxeetan eta oinarrizko Lanbide Heziketako zentroetan.

Orain arte **75 gela** daude izena emanda, **guztira 1.500 gaztetxo**, iaz garai honetan interesa zutenak baino 100 gehiago. Izen-emate kopuru horiek aintzat izanik, hasi berri den ikasturtean **2.000 ikaslek** parte hartuko dutela uste da, guztiak DBH-ko bigarren ziklokoak eta oinarriko Lanbide Heziketakoak.

Lurraldeen arabera, parte hartzeko interesa azaldu duten ikastetxeen %62,5 Bizkaikoak dira, %27,5 Gipuzkoakoak eta %10 Arabakoak.

Gelen %58k euskara hautatu du, eta %53k jokoaren oinarriko maila

'Finantzak Bizitzeko' programan erabiltzen diren tresna didaktiko guztiak eta irakasleak elebidunak izaten dira, beraz programa euskaraz edota gazteleraz egin daiteke. Ikasturte honetan izena eman duten ikastetxeen **%58k euskara** hautatu du, eta %41,5ek gaztelera.

Programa hau **simulazioko joko** batean oinarritzen da eta **partaidetza du ardatz,** honela oinarriko finantza ezagutzak ezezik matematika, teknologia digitalak edota hizkuntza-komunikazioa lantzen dira. **%53,2k** jokoaren oinarriko maila aukeratu du.

Finantzak Bizitzeko' programak parte hartzen duten zentroei behar duten material didaktiko guztia ematen die, tartean **hezkuntza dinamizadoreak** bai eta **Kutxabankeko adituak** ere (gehienak lanean ari diren bulegoetako zuzendari gazteak). Hauek ikasgeletara joaten dira azken saioetan, beharrezkoa den **argibide** guztiak eta laguntza ematera, **arazo bakoitzerako konponbide** egokienak proposatzera eta ekimenaren helburuak bete diren baloratzera.

Aurtengo 'Finantzak Bizitzeko' programaren lehen saioak **urriko lehen astean** hasi ditu Kutxabankek, eta **ekainera arte** luzatuko dira. Zabalik jarraitzen dute komunikazio prozesuak eta ikastetxeentzako eskaintzak.

Hezkuntza programa honi buruzko informazioa jaso nahi duten irakasleak www.finanzasparalavida.com web orriaren bitartez edo 900103757 telefonora deituta jarri daitezke harremanetan.